

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittori Zarrabeitia Lauzirika

*Kortezubi,
Bizkaia
(1926-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1926an jaio zen Barrutia auzoko Piperrene baserrian. Bere aita, *Piper*, Larrabetzuko Basatxe baserritik (gaur egun jausita dago) etorri zen Barrutira familiako etxera morroi lanetara; ama Muxikako San Romanekoa zen, Besangizekoa. Bost neba-arrebatatik laugarrena da bera. Umetan Gernika-Lumoko karmeldarretara joan zen eskolara eta josten ikastera; tarte horretan 2-3 hilabetez Kortezubiko eskolan ibili zen. Umetan izekok-eta zuten dendako errekaduak eramatera errekadista beharretan ibili zen eta bertarako jenero bila joaten zen Gernikako dendetara. Ezkondu aurretik jantzigintza ikasi zuen hiru hilabetez. Beti aritu izan da baserriko eta etxeko lanetan. Barrutia auzotik beti izan dute Gernika-Lumorako joera (Kortezubirako baino gehiago), Gernikatik kilometro eskasera dago-eta. Hori dela, bertan bizi izandako kontu ugari kontatzen ditu. Auzo bereko Barrutibaso baserriko Bizente Mendioleagaz ezkondu ostean bertara joan zen bizitzera, eta hiru seme-alaba hazi zituzten. Bere biloba da elkarrizketatzailea.

Zintak

KOR-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-27
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

KOR-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-01-29
- **Iraupena:** 138 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

KOR-005

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Astorkia, Estiñe - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2004-04-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Astorkia, Estiñe

Pasarteak

1. Eskolara amama hil arte; gero, etxeko lanetan

- **Erref:** KOR-001/005
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bost neba-arreba izan ziren. Baina ahizpa gazteena seme-alabarik ez zuten osaba-izeko batzuekin hazi zen. Bera etxean gelditu zen hiru nebarekin; hori dela eta, behar asko egin behar izan zuen. Amama ere berak jagoten zuen gaixo zegoenean, hil ere bere aurrean hil zen; amama hil zenean, 12 urte zituen, eta ez zen eskolara bueltatu. Bere nebak, oster, gaueko eskoletara joan ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek zenbat neba-arreba, bost?
- Bost neba-arreba. Baia ni jaixo nitzenien, tio-tiak —Ameriketik etorri zienak— eurek gure izen eben ni hartun. Ta nire amumak esan otsien / esantzien/: "Ez, hau eskatute dau". Ze nire aittebitxi ta amabitxi zien Madarixenekoak, ta harek Madarixenekoak etorri zien Munittibarretik. Ta ez dauen lez euki umerik, nire ama ekusi euenien familixe izeteko dauana, "Ene, ez dekogu besoatakorik ta geuri emoixu". Ta gero amumak ez zien emon gure izen tio-tiari ni, ba, hurrengoa emongo otsiela ta. Ta halantxek emon otsen /emontzen/ hurrengoa, tia Gregori. Ta gero, tia Gregori jaixo zani, nire ama gaixotu in zen —parto txarra edo—, ta harei emon otsien / emontzien/ ha umie. Ta hantxe hazi zen, tia Gregoria, gure aldien elegante hazi zen. Ni "la esclavita de Piperrene". Hiru neba euki nauzen zaharrauk ta aitzie, ba, señoritte alboan tio-tiakaz. Ta Karmelittetara joan nitzen ni amuma bizi zan artien. Nik haimaka urte dekotezela hil zan amuma. Ta neu hasi [...], neu jaboten amuma kuartuen. Ta amumak: "Bitori, ointxe erreza niri hiru Abemarixe, hiru Abemarixe", ta amuma errezetan ta neu be errezetan, ta amumak halakon baten "aaa" halakoxe zer bat ein osten / eisten/ ta amuma hil. Neu bakarrik nauela. Ta gehixa ez nitzen juan eskolara. Gero [Mugan] jakin eben lez /jakibelez/ nire ama gaixoa dana, amari laguntzen edo, [aldato] moduen, lapikotxoa hartun ta eruaten neuen

tia Gregoriari. Ha etzie bat zan dana, ta kortatik bueltan tia Gregoriari erakusten, tia zaharrari: "Tia, honeri sartuko dotsat /sartukotzat/ azie?" edo "honeri hau eingo dotsat /eingotzat/?" edo "zelan da hau?" edo. Ze tiak astirik ez [...] dendiaz etorteko ta. Ta gero, jakitzen eben lez /jakitzebelez/ mojak ama gaixoa dekotena, jostie egoten zanien, botaten nenduen, eskolie nehikua dekotela ta. Orduen denporan! Ta nire nebak gabeko eskolara ibili zin Gernikera, ta ni, ba, hasiko nazela ta oin be amesetan eitten dot, beti hasteko. Ta nire aitzie, besapien libruiek eta beste alderdixen nobixoa, ondiñok ikasten beti.

2. Karmeldarren ikastetxean ospitalea jarri zuten

- **Erref:** KOR-001/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Astean pare bat arratsaldez joaten zen josten ikasten karmeldarretako mojangana. Militarrek sartu aurretik hura zarratu eta ospitalea jarri zuten bertan. Orduan, hilabetez edo pare bat hilabetez, Kortezubiko eskolara joan zen. Ostean mojak berriro sartu ziren ikastetxera, baina berak ez zen askoz gehiago joan, amama hil eta etxean gelditu beharra izan zuen-eta.

3. Josten ikasi eta gero jantzigintza ikastera

- **Erref:** KOR-001/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ume-umetatik irakasten zuten josten. 18-19 urterekin josten hasi zen Santa Anako Justi Txertudirekin. Eskuz, orratzarekin, josten ikasi ostean, hiru hilabetez jantzigintza ikasi zuen

4. Eskolan ikasten zutena eta mojak

- **Erref:** KOR-001/011
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:17:17. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Gaztelanian ikasi zuten dena. Liburu batean eta hiztegi batean zituzten ikasgai guztiak: "Historia sagrada", "catecismo"... Moja batzuk aipatzen ditu:

Mungiako "Hermana Petra" eta Foruko "Hermana Vitoria". Mojak euskaldunak zein erdaldunak ziren. Askorik ikasi ez arren bizitzan ez duela inongo arazorik izan dio. Baserriko lanak egonez gero ez zen eskolara joaten.

5. Gernikako bonbardaketako kontu ugari

- **Erref:** KOR-001/012
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikako bonbardaketa hasi zenean, itaurrean zebilen bere neba batekin. Bermeotik etorri ziren aireplanoak trenbidetik, baxu-baxu, eskopetarekin harrapatzeko moduan. Lehenengo bonba Erreterria auzoko zubian bota zuten, baina ez zuten apurtu. Bere ama Gernikan egon zen plazan; eta, goizean aireplanoak ikusi zituen, etxeranzko bidea hartu zuen. Babeslekuetan sartu zen jendea ere hil zen, bertara ere bonbak bota zituzten-eta. Gorpuak zeintzuk ziren jakin gabe palekin batu, eta kanposantura eraman zituzten. Soroan harrapatu zuen bonbardaketak eta bere nebak ganaduak hartu eta handik alde egin zuen alboko baso batera; bera, oster, bertan gelditu zen beldurrez. Miliziano batzuk azaldu ziren eta zubipean sartu zuten babesteko; bertan egon zen iluntzera arte. Amamaz arduratuta egon zen, baina bere amama kobazulo batean babestu zen. Barrutiko etxe guztiak bete ziren Gernikatik alde egindako jendez.

6. Gernikako dendak: "Estanquerito", "Isidrerito"...

- **Erref:** KOR-001/013
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Bonbardaketa aurreko Gernika oraingo Gernika baino txikiagoa zela dio, baina oso polita zela. Bere izekok-eta taberna-denda zuten eta haiantzako errekaduak berak egiten zituen. Tabakoa San Juan Ibarrako "estanquerito"tik ekartzen zuen. Erdiko kalean "Isidrerito"ren denda egon zen, eta haren aurrean Juanitarena. Aranatar batek alkohola saltzen zuen bere dendan,.

7. Juanita "puntillerie" tela-saltzailea

- **Erref:** KOR-001/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Juanita "puntillerie"nean erosten zituzten telak. Hango seme bat, Luis, etxerik etxe ibiltzen zen telak saltzen.

8. Gernikako plazara ume-umetatik

- **Erref:** KOR-001/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:27:33. **Bukatu:** 00:30:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Umetan plazara joaten zen. Behin pila bat piper saldu zuen eta diru asko atera zuenez bazkaltzera joan ziren. Bakarrik joaten zenez ezagunen baten ondoan jartzen zen, izeko Marzelinaren alboan, normalean. Behin izeko ez zegoela-eta, beste emakume baten ondoan jarri zen, baina emakume hura ez zela ondo portatu dio. Berak buruko otzaran eramaten zuen jeneroa plazara eta bere aitak astoz.

Transkripzioa

- Ni plazara joate nintzen ta baten piper pillua saldu nauen ba. Piperrak ordun asko egote zien ta, ta ama etorri zen errekaduk eitten baia egon bihar izan gendulez, gauza haundixe zan orduen. "Bazkarie jangou" diru emonotzonien amari piperrena "diru asko hartu zu". Juate nintzen han ni piperrak e aittek lantzin behin ta aitte ez doienien paretan nintzen persona ezagun baten onduen edo tia Marselinen ondoan edo. Ta ama etorri zanien: "ama beittu zenbat diru hartu [...]" ta emon notzon. Amak e "bazkaixe jangou gaur Gerniken" ta orduen e ez dakit ze jan gendun ahaztute dau baia gauza haundixe orduen. Halantxenik zan bizimodue ta...

- Eta plazara ze genero bajatzen zenduzen ba?

- Plazara, baten basaten nin itzela! Buruko otzala, piper sikuak bebai ta piper sikuak saldu neuzen. Orduen denporan ez dakit bost peseta izen bazan zientue edo. Neska gaztetxue ni ta juan nitzen ta ez zan egon tia Marseliña, [...] zan tia, ha ez zanien egon beste baten ondoan pare nitzen, beste ezagun baten ondoan. Ta harek esan ezten ba zera baten "araiño piperragaitxik ez emon uma, ez emon uma" bixak [...] ta gero berak emon. Ta gero berak emun, nik negar itte neuan haixe, haixe traisiñoa iztelako. Gehixau han andre ezin, haren ondoan ez nitzen parau gehixau.

-Ez?

-Ez, ez gero berak emon ta niri ez emon eza. Ta igual etorte giñen, saldu ez ta, ta arin atzera gehixaun billa. Oin ya ez orduen, burukotza, piper sikue ta... baiña ostantzeko gauzek aittek eruate ebazen karroan, guk orduen be astoa ta karroa barruteixen. Beste askok burdixetan. Genero guztixe sagar-sasoie, sagarra ikoa dauenien be buruen hartun hotzadie ta, taberna barrik hotzadi buruen ta, taberna barriko besoan bebai ezta lantzien behin, taberna barriko zubixa gañien deskantzue, deskantzu haundixe hartzen ta ostabe Gernikara arte. Ta saldu itte genduzen, oin halan ez da.

9. Plazan inguruetako denak batzen ziren; euskara galarazita

- **Erref:** KOR-001/017

- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:30:33. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Jendea herriko inguruetatik hurbiltzen zen Gernikara: Arteagatik, Nabarniztik, Ereñotik, Gabikatik, Omatik, Forutik, Muruetatik, Muxikatik... Gernikako bezeroak onak zirela dio. Francoren garaian, ez zuten euskaraz berba egiten uzten, galarazita zegoen.

10. Barrutin bizi zen militarra

- **Erref:** KOR-001/018
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:32:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamenduan, produktu ugari jasotzen zituzten; eta jasotakoa ezkutatuta eramaten zuten, ez konfiskatzeko. Barrutin militar bat bizi zen; eta, lau ume zituen, Bittoriren ortutik eta solotik-eta gura zutena hartzen zuten. Militar horrek bertatik pasatzen zen jendeari konfiskatu egiten zien, baina beraiei ez.</p>

11. Militar batzuek neska gazteei eraso egiten zieten

- **Erref:** KOR-001/019
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:32:59. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bonbardaketa osteko lehenengo egunetan, tiroketak-eta entzuterakoan, errama azpian ezkututzen ziren soloetan eta karkabetan. Soldaduengandik-eta babesteko, neskei erasotzen zieteneko-edo, osaba-izeko batzuen etxean egon zen militarrek sartu zirenean. Mairuek ospe txarra zuten, neska gazteak bortxatzen zituztela zioten; mairuak Gernikako Mertzeden zeuden.

12. Soldadu italiarrekin hartu-eman ona

- **Erref:** KOR-001/020
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:35:04. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Soldadu italiarrek makarroiak ematen zizkieten jateko, eta galiziarrek gisatua. Joan zirenean, armairu bat jatekoz beteta utzi zieten. Soldadu italiarrak onak zirela dio, bere amamari "Nona" deitzen zioten. Ondo zaindu zituzten, mairuak hurbiltzen zirenean ez zieten etxetik irteten uzten.

13. Hiru kortezubitar hil ziren bonbardaketan

- **Erref:** KOR-001/022
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:38:16. **Bukatu:** 00:40:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gernikako bonbardaketan, Errenteriako zubia apurtu nahi izan zuten, baina ez zuten lortu. Zubi ondora bota zituzten bonbak, eta Kortezubiko Oma auzoko gizon bat hil zuten. Bonbardaketa egunean, beste bi gizon kortezubitar desagertu ziren, hirurak ziren omarrak. Euretako baten astoa etxera bueltatu zen bere kabuz. Baten gorpua baino ez zuten ezagutu; hori dela-eta, bakarra ekarri zuten Kortezubiko kanposantura.

14. Hildakoen gorpuak palekin batzen; hil zituzten senitartekoak

- **Erref:** KOR-001/023
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:40:04. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Bonbardaketan hildakoen gorpuak mutil gazteek batzen zituzten, bere bi neba ere behar horretan aritu ziren derrigortuta. Jende asko arbolapeetan ezkutatu zen, bai San Juan Ibarran eta baita Forurako bidean ere, baina aireplanoak baxu-baxu joan zirenez metrailetaz hil zituzten asko eta asko. Gorpuak zabor-biltzaileen kamioietan batzen zituzten. Bere aitaren lehengusina batek, senarra eta semea galdu zituen Durangoko bonbardaketan; eta, aitaren lehengusina bat eta bere semea ere Gernikan hil zituzten.

15. Babeslekuak; ebakuazioa eta salbokonduktoa

- **Erref:** KOR-001/025
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:43:28. **Bukatu:** 00:46:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Arana kondeak txaleta zuen San Juan Ibarra. Lurpean babeslekua zuen eraikita eta jende asko bertara joan zen; baina, apurtu egin zen, eta asko bertan hil ziren. Merkatu-plaza azpian ere lurpeko babeslekua zegoen. Bere aita eta neba zaharrena ebakuatu egin zituzten, militarrek sartu zirenean. Lau behi hartuta, lau hilabetez egon zen aita Kastrexanan. Etxera bueltatu zenean, zubi bat konpontzen aritu zen pasatu ahal izateko, eta horrela salbokonduktoa lortu zuen, askotan espetxeratu egiten zituzten-eta. Bere neba Luisek soldadu joan behar zuen, baina ez zuen nahi. Lau behirekin joan arren, bakarrarekin etorri ziren bueltan, Noblerekin.</p>

16. Salbokonduktoa; karlista batek libratu zuen aita kartzelatik

- **Erref:** KOR-001/026
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:46:36. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Salbokonduktoa lortu zuen bere aitak. Ebakuaziotik bueltatzean, asko eta asko kartzelaratu egiten zituzten, bere osaba bat tarteko. Baina bere aitak lagun karlista bat zuen, Manu Obarre tratantea; eta, haren laguntzaz eta haren idazkari kortezubitarraren laguntzaz, libre geratu zen.

17. Tratante-laguntzaile

- **Erref:** KOR-001/028
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:50:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Manu Obarre tratantearen baserría Lumon dago. Asteleheenetan behiak entregatu behar izaten ziren, oinez egin behar izaten zen lan hori. Bere aita eta bera laguntzen aritzen ziren eta diru apur bat jasotzen zuten ordainetan.

18. Soldadu ez joateko medikua "erosi"; Karta bidezko komunikazioa

- **Erref:** KOR-001/029
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:50:26. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Bere neba zaharrena aitarekin batera egon zen ebakututa, baina 18 urterekin soldadu joan behar izan zuen eta han zegoela begia zauritu zuen. Berriro bueltatu ez zedin beraien izeko batek medikua "erosi" zuen, estraperloan eta errazionamenduan hartutako jeneroz bete zioten autoa. Gerra bukatuta, Afrikara joan zen eta han egin zituen sei urte; beste nebak osteratuta, lau urte egin zituen. Nebak soldadutzan zeuden bitartean kartaz komunikatzen ziren. Berak idazten zituen gutunak; hori dela-eta, bere neba batek erlojua eta eskumuturrekoa oparitu zizkion. 100 pezeta bidaltzen zizkieten gutunean.</p>

19. Barrutiko 'Cura caballo'; mezak latinez; bekatuak

- **Erref:** KOR-001/031
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:54:56. **Bukatu:** 00:57:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Barrutian Cura Caballo zuten, Etkezarra gaineko ermitan ematen zuen meza. Jaberianoek ere ematen zuten meza, Kortezubiko bainuetxean zeudenak. Cura Caballo Etkezarrekoa zen, zaldiz ibiltzen zen, eta hori dela eta zuen ezizen hori. Sasoi hartan mezak latinez izaten ziren. Konfesatzea ere derrigorrezkoa zen. Jendeari atzea ematen zion abadeak. Mutilekin dantzari egitea bekatua zen, musua ematea bekatu mortala. Hala ere, bekatu egin arren, guztia konfesatzen zuten. Ezkondu ostean ere gauza asko bekatu ziren.

20. Errazionamendua; Barrutin lurperatutako militarra

- **Erref:** KOR-001/036
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 01:00:28. **Bukatu:** 01:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Errazionamendua zer zer azaltzen du. Herriko hainbat txokotan banatzen zuten: Ganen, Barrutin, Elizalden... Behin, militarrek sartzerakoan, bere amama taloak egiten egon zen eta talo guztiak jan zizkieten. Orduan, izekoren dendan gailera-kutxa bat hartu eta handik alde egin zuten. Horietako militar bat hil egin zuten eta bertan lurperatu, Patxikoneko ortuan. Zehatz-mehatz daki zein den lurperatutako leku hori.

21. Patxikonekoak Frantziara joan ziren, eta bueltan, etxea okupatuta

- **Erref:** KOR-001/038
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Patxikoneko baserrikoek txerria hil zuten behin eta beraien izekonera ekarri zuten, baina udaletxean entregatu beharra zegoen. Raimundita izeneko oiloa ere ekarri zuen bere izekok. Hala ere, gerora, Patxikonekoak Frantziara joan ziren, luzaro egon ziren bertan. Frantziatik bueltatu zirenean, etxea okupatuta aurkitu zuten, Erreteria auzoko batek okupatu zuen, bonbardaketan etxe barik gelditutako batek. Etxea libre geratu arte, beraien etxean egon ziren Patxikonekoak.</p>

22. "Txuskoa" eta labesua

- **Erref:** KOR-001/041
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:07:26. **Bukatu:** 01:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamenduan ogia ematen zieten "txuskoa", labezomorroak ere izaten zituzten. Etxean labesua edo taloa egiten zuten. Errotara gauean joan behar izaten zuten. Labesua zelan egiten zuten azaltzen du, aste osorako ogia izaten zuten. Ez zuten goserik pasatu: baserrian beti zegoen zer jan.</p>

23. Goikoleako errotariari Guardia Zibilak zetoze abisatzen

- **Erref:** KOR-001/042
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 01:08:42. **Bukatu:** 01:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Errota asko zeuden. Oman bi zeuden, eta bata Goikolea zen. Behin kalean entzun zuen hangoek tranpak egiten zituztela (sasoi hartan prezintatuta zeuden errotak) eta Guardia Zibilak joango zirela, eta bere senarra bertara joan zen errotariari abisatzera, laguna zuen eta. Guardia Zibilak heldu

zirenerako, guztia garbitu eta armiarma-sarez bete zuten zarratuaren itxura eman zezan. Jendeak gauez erabiltzen zituen galarazita egon zirelako. Arratzun hiru errota egon ziren: Arrandieta, Gaztaiñerrota eta Jose errota. Gernikako Erreterria auzoan ere egon zen bat. Errotariak ehotakoaren portzentaia bat jasotzen zuen, ordain gisa.</p>

24. Laratzean lapikoa edo trebera

- **Erref:** KOR-001/049
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:20:47. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Laratza su gainean jartzen ziren lapikoak-eta eusteko erabiltzen zen; trebera ere izaten zuten. Zelan eusten zituzten azaltzen du. Kafea egiten zutenean arte (arbola) zati bat sartzen zuten zaporea emateko. Pinuan-eta usaina ematen zuten, hori dela eta, artea erabiltzen zuten.

25. Omarko artadiak

- **Erref:** KOR-001/050
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:22:42. **Bukatu:** 01:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Omarko baserri guztiek dituzte artadiak. Handik ekartzen zituzten urte guztirako gurdikadak. Gaur egun ez dakite zein zati den zein baserrirena.

26. Garbiketak: sutarako hautsa, "bolas maravillosas", txinbo xaboia...

- **Erref:** KOR-001/051
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:23:54. **Bukatu:** 01:26:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Sutarako hautsa erabiltzen zuten garbiketarako. Garbitokian belarrarekin batera igurtziz garbitzen zituzten tresnak. Arropentzako "bolas maravillosas" erabiltzen zituzten arropak biguntzeko; txinbo xaboia ere erabiltzen zuten. Tinan eta galdaran garbitzen zituzten arropak. Piperrenen oso ondo bizi ziren ur aldetik, etxe aurrean baitzuten ura, eta garbitokia ere bazuten.

27. Taberna Barriko erre kara xaboa kentzen

- **Erref:** KOR-001/053
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:26:39. **Bukatu:** 01:28:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Militarrak sartu zirenean Madariagako basoan jarri zuten akanpalekua. Kamioiek hodiak apurtu zituzten eta bere neba Luisek konpondu zituen. Taberna Barriko erre kara joaten ziren astoz arropen xaboa kentzen. Behiak ere bertara eramaten zituzten. Orduan errepidean ez zen inor ibiltzen.

28. Kandela, karburua eta petrolioa

- **Erref:** KOR-001/057
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:30:34. **Bukatu:** 01:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bere amaginarrebak hasieran ez zuen bonbilla ukitu ere egiten karranparik ez jasotzeko. Argindarra izan aurretik karburua, kandela eta farola erabiltzen zituzten; etxean farola baino ez zuten erabiltzen. Petrolioak usaina ematen zuen, horregatik kandela eta karburua erabiltzen zuten gehiago. Petrolio erakusten du eta zelan erabiltzen zen azaltzen du. Gurdiaekin errepidea ikusteko farola erabiltzen zuten.

29. Txingarrez betetako lisaburdina

- **Erref:** KOR-001/058
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:32:38. **Bukatu:** 01:34:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lisaburdina txingarrez betetzen zuten berotasuna izan zezan. Zelan erabiltzen zuten azaltzen du. Sukalde ekonomikoak jarri zenean beste lisaburdina batzuk hasi ziren erabiltzen. Bere neba bat aritu zen etxerik etxe sukalde ekonomikoak jartzen.

30. Gernikako bonbardaketan zubipean ezkutatu zen

- **Erref:** KOR-005/002
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:02:31

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Durango eta Gernika bonbardatu zituztenean, 10 urte zituen. Durango bonbardatu zuten egun berean bere aitaita hil zen. Gernikako bonbardaketa hasi zenean itaurrean zebilen zubi baten azpian bere neba batekin. Aireplanoak trenbidetik zetozen, baxu-baxu. Bere nebak behiak hartuta egin zuen ihes, eta bera bertan gelditu zen beldurrez. Miliziano batzuk egon ziren zubi gainean eta haiek lagundu zioten.</p>

Transkripzioa

Pasa dan /pasan/ astien ixen da Durungoko bonbardeoan egune, ta orduntxe akorde dxaten, ni ni bonbardeoko egunien, euzoko neska nagosi bategaz, nik hamar urte ta nire aitziek zortxi urte, ta etor giñen eskutxetan horraxe godxera, orduen be, hamen e esan egon lekuri niretzat, ze Gernikeko bonbardeoko jentie erretireta egon zan, ta gu horra karkaba batera joan giñen eskutxetan ta gero lehengunien, e! Radidxoak esan banien bonbardeoko egune dala Durengokoak, enee!, akorde dxaten, ene gure atxitxe hil zala hirurogeta zazpi urte. Karo, nik e, hamazortzi eingo dotez /eingotez/, hirurogeta hamazortzi..., hiruta zazpi urte. Ta etor giñen eskutxetan, ta gu, ordun entieru goixien eitxe zan, ta gu honantza gatozela hor errekan, bakixu nun?, hor beheko bidie hartzen dan lekuen, gu honantza ta abadie joan zan gorpuen bille harantz, atxitxen bille, enterretako, zelan akorde dxaten, e?. Bonbardeoko egune ixen zanien Durungokoa. Gero Gernikeko bonbardeoan egon giñen, hamendik urten ta zelan dauen zubi bet? hantxe azpidxen, itturen ibiltzen nitzen ni behidxekaz, behidxen eurretik, ta tio Jenaro atzetik, ta bonbardeetan etor zien hamendik, hortik etorte zien aeroplanoak, trenbidieri segidute, trenbidieri segiduten otsien /segidutetsien/, baju-baju-baju etorte zien aeroplanoak, ta nik itturen nauen lekuen, gure tio Jenarok behidxek basora bota bazen alpelarridxegaz ibil giñen ademas. Alpelarridxe ez dakixu zer dan?, hor dauena, hoixe harridxe, soloa zapaltzeko, artoa ereitxeko. Ta tio Jenarok ze in ban? Karkabarik karkaba eskapeu, eskutxeta, eskutxeta, jentie. Ta ni gogortute joan nitzen solora, mobidu eziñik, ta milizianuek egon zien zubi ganien ta hartunde erun ben milizianoak.

31. Bonbardaketaren ondorena: jendea noraezean, gorpuzkiak palekin jasotzen...

- **Erref:** KOR-005/003
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:05:11

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketa astelehenez izan zen, azoka-egunez. Bere ama ere Gernikara joana zen, eta arduraz egon ziren; baina, lehenengo bonba bota zutenerako, etxera heldu zen. Bera zubipean egon zen ezkutatuta, hotzez, eta amama joan zitzaion bila. Etxera bueltatzerakoan, beraien etxea Gernikarako bidean dagoenez, jende asko ikusi zuten bidean noraezean galduta. Gernikako izeko eta lehengusu-lehengusina batzuegatik arduratuta egon ziren, baina Forura joaten lortu zuten. Bonbardaketa ostean, likido bat bota zuten

aireplanoetatik denak su har zezan. Hurrengo egunean, kale-garbitzaileak palekin gorpuzkiak jasotzen ibili ziren nortzuk ziren jakin barik.</p>

Transkripzioa

Astelehena zan, ta astelehenien Gerniken jente asko, ta guk ama falta ixen gendun, ama Gerniketik, gero etor zen ama, ama allege biher ixen /bixe/ ban etzera, lehenengoko bonbiek jo banien Gerniken, amuma, zure amuma, Barrutire sartun eta zubipengo hotzagaz ta amuma etorri hara ta amentaltxuegaz tapeta euki, egon giñen, uretan hankak, ure zubipien be, eskutxeta egon biher, oiñetakotxuek bai, ezta? Hankak bustitte ez, baia, hantxe. Gero handik urten gendunien, amuma bixi neuen nik orduen, handik hamar hille bete hil zen amuma, atxitxe ta amuma bidxek hamabi hille beten barruen, ta bagoaz etzera ta kalien, kamiñoan jentie danak, umiek be galdute, umiek be gurusok-eta hildde, danak negarrez ta dana jentie. Ta gero amuma, han nebera bidien buztinë atate zan, ta buztinë ataten zan lekuen, huekoa barruen egon zan ba, ta han eskutxeta amuma, tia Gregoria haundixegaz, e! Ez honegaz txikidxegaz e! Beste tia bat, neure tiaategaz, ta joan giñen etzera ta klaro!, Gerniken, Pili ta familidxe, Pilin ama ta danak ta ka, amumak e: “ene! Nun ete die harek, nun ete die harek!” Gernike guztidxe, dana su egon zan, su! baze bonbardeotik gero likido bat edo bota biher ixen /bixe/ ben aeroplanoak, su hartzeko danak. Hurrungo egunien etor zien Pili-ta horra Forun, Forure harek erretire zien, jentiek, haunek alboko etziek danak bete zien, Gerniketik urtenda jentiek. Hil be asko, e! Hurrungo egunien barranderuek palakaz batunde, nortzuk dienik barik, danak! Eneeee! A zan!. San Juan Ibarren be, dana behien hildde, hau erreixo ezkiñie be, arbolapie, ta jentie eskutxeta, metrailliegaz aeroplanoak, ta aeroplanoak etorten zien baju-baju-baju, armiaz artapetako moduen ta iñok defendidu be ez. Ta gero ba ostien, hona etorten giñen eskutxetan, horra gora karkaba batera.

32. Mairuek bortxa ez zezaten ezkutatuta; esne-kantinak hustu zizkieten militarrek

- **Erref:** KOR-005/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:05:11. **Bukatu:** 00:07:11

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Izeko baten etxean egon zen luzaro mairuengandik ezkutatuta. Bortxa ez zezaten ezkutatu zuten bertan. Mairuek Mertzedeoko komentuan izan zuten kuartela. Etxean ogi zuria zutela-eta, esne-kantina batekin bueltatu ziren, baina bidean militarrekin topo egin eta kantinak hustu zizkieten.</p>

Transkripzioa

- Ta gero nik, hamaika urte eitteko egon nitzen, ta orduen amak-eta esaten ostien /esatestien/, ba zuk Abarsolora joan biher dozu /bizu/, hara Kortezubin tia batenera, amuma ta ni joaten giñen hara, ta han egon giñen luzero, ta nik moroak jan ez dizen-edo, moroak artape ez dizen, ze moroak egon ziren Merceden. Merzedeen bonbardeoko ostien moroak egon zien. Hor, Merzedeko konbentuen, kuartela, moroana, ta klaro gero akorde dxaten niri, moroak-eta... “zu gaizto parete zara eta ez dakit zer /ez dait

zer/” , moroak zertun ez distien, niri kontixu amumak eta eskutxeu, ta egon giñen hor e, tia batenien, lehengunien hildden lehengusiñe?, harexen etzien, ta harek egon zien neska bi. Ta ni hiru, ta nire ama be han egon zan, ta tia Martzelinak-eta be, harek urteten otsien /urtetetsien/, soldaduek e hori atera, ta gu eskutxetan goidxen, bioleu ez gintzezen. Gero akordeu eitte ixen dxatez niri be horrek. Bioleu ez dixen. Ez dakizu zer dan bioleu?

- Bai, bai.

- Gero akorde neuri be eitte ixen dxatez horreik, gu zegaitxik ama-eta gordetan gaittuen orduen be, ze txarrikeri handidxe ibil zen ba soldadu-eta ta gero militarrek sartu zienien, Jenaro etor dxakun hara Abarsolora. Ta eneeeee! Etzera etorteko ogi zuridxe ekar deuela-ta etor giñen kantintxu bete esnegaz, ama ta ni etxera, ta etxera orduko soldaduek kantiñe hutsittu ein oskuen /einskuen/, tragoka, tragoka, tragoka. Ogidxe jan ta esnie dana hutsittu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com